

# **Hariak:** **Bakardadeei aurre** **egiteko Gipuzkoako** **estrategia**


## Estrategia de Gipuzkoa ante las soledades


# Aurkibidea

Gauzatze laburpena	4
Estrategiaren oinarrizko eskema	8
Sarrera	10
1. Bakardadeen erronka soziala Gipuzkoan	
1.1. Hariak: Zergatik? Zertarako?	15
1.2. Kontzeptu esparrua	17
1.3. Gipuzkoako errealitatea	24
1.4. Estrategiarako koordinatuak: justifikazioa, konpromisoa, eragi- leak, epea eta testuingurua abiapuntuan	28
2. Estrategia	
2.1. Helburua, ikuspegia eta printzipioak	33
2.2. Jarduera tipologiak bakardadeei aurre egiteko	38
2.3. Aldaketaren teoria bat bakardade egoerentzat	41
2.4. Ibilbideak	44
2.4.1. Sarea eta gobernantza	46
2.4.2. Elkarrizketa publikoa	48
2.4.3. Berrikuntza eta zabalkuntza	51
2.4.4. Ebaluazioa eta ezagupena	53
Oinarrien dokumentutik onarturiko strategiara	56
Dokumentu eta bibliografia erreferentzia nagusiak	59


# Índice

Síntesis ejecutiva	4
Esquema básico de la estrategia	8
Introducción	10
1. El reto social de las soledades en Gipuzkoa	
1.1. Hariak: ¿Por qué? ¿Para qué?	15
1.2. Marco conceptual	17
1.3. La realidad de Gipuzkoa	24
1.4. Coordenadas para la estrategia: justificación, compromiso, agentes, plazo y contexto en el punto de partida	28
2. La estrategia	
2.1. Propósito, visión y principios	33
2.2. Actuaciones-tipo ante las soledades	38
2.3. Una teoría del cambio para las situaciones de soledad	41
2.4. Itinerarios	44
2.4.1. Red y gobernanza	46
2.4.2. Conversación pública	48
2.4.3. Innovación y extensión	51
2.4.4. Evaluación y conocimiento	53
Del documento de bases a la estrategia aprobada	39
Principales referencias documentales y bibliográficas	59





**Gauzatze**  
**laburpena**  
Síntesis  
ejecutiva



Oinarrien dokumentu hau lanaren lehenengo emaitza da. Adinberri Fundazioak koordinatu du, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Departamentuarekin batera, eta hainbat eragile gonbidatu dira bertara; horietako batzuk dokumentua egiteko sorturiko talde eragilearen parte dira.

Gipuzkoa barnean eta kanpoan eginiko aurreko lanetan oinarritzen da, eta, funtsean, ekarpen berriak jasotzeko tresna bat da, eragile hauenak eta beste batzuenak, prozesu parte-hartzaile batean. Helburua da 2021. urtean zehar egina eta onartua izatea bakardadeei aurre egiteko Gipuzkoako estrategia.

Politika publikoko estrategia partekatu berri honen xede dira hainbat motatako bakardadeak edo hainbat bakardade egoera-tipologia. Estrategia hau 3 (2+1) urterako eta Gipuzkoarako dago eginda, baina epe luzearako helburua du eta beste estrategia eta politika batzuekin erlazionatzeko pentsatuta dago, eskala txikiagoan edo handiagoan.

Bakardade egoerak, bakardadeak, fenomeno konplexua dira, eta pertsona eta giza komunitate orok bizi izango ditu, seguru asko, bere bizitzako une desberdinetan,

Este documento de bases es un primer fruto del trabajo, coordinado por la Fundación Adinberri junto con el Departamento de Políticas Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa, al que se ha invitado a diversos agentes, algunos de ellos como parte del grupo motor creado para su elaboración.

Se apoya en trabajos anteriores dentro y fuera de Gipuzkoa y es, fundamentalmente, un instrumento para recabar nuevas contribuciones, de éstos y otros agentes, en un proceso participativo, de cara a lograr tener elaborada, a lo largo del año 2021, la estrategia de Gipuzkoa ante las soledades.

Diversas soledades o situaciones-tipo de soledad son tomadas como objeto de una nueva estrategia compartida de política pública, que se formula para 3 (2+1) años y para Gipuzkoa, pero que tiene vocación de largo plazo y de imbricarse con otras estrategias y políticas a menor y mayor escala.

Las situaciones de soledad, las soledades, constituyen un fenómeno complejo con el que toda persona y toda comunidad humana se van a encontrar, muy probablemente, en diferentes momentos de la vida y con distintas características. Las soledades pueden

ezaugarri desberdinekin. Beste fenomeno batzuek sor ditzakete bakardadeak, edo bakardadeetan eragin dezakete (edo haiekin batera jardun), zuzenean edo zeharka.

Coviden pandemia eta hari aurre egiteko neurri batzuk, pertsonen arteko harremanei eragiten dietenak, pizgarria eta erronka dira strategiarentzat.

Estrategia honen helburua da egoera hauen aurrean pertsona guztiek gaitasun eta baliabide gehiago dituzten Gipuzkoa eta Euskadi eraikitzen laguntzea; horrela, gaitasuna izango dute egoera horiek aukatzeke, gustagarriagoak egiteko, egoerei buelta emateko edo egoerak saihesteko.

Adineko pertsonengan eta zahartze prozesuetan dugu begirada, baina ez bakarrik horietan, ez modu baztertzailean.

Estrategia honen oinarri dira printzipio hauek: unibertsaltasuna-normaltasuna, prebentzioa, pertsonalizatzea, komunitatea, sektoretasuna-sektoreartekotasuna-zeharkakotasuna, aniztasuna-sekzioartekotasuna, partaidetza-koekoizpena-elkartasuna, berrikuntza eta eskalagarritasuna, eta digitalizatzea.

venir desencadenadas o afectadas por (o interactuar con) otros fenómenos, de forma más directa o indirecta.

La pandemia de la covid y determinadas medidas para hacerle frente que afectan a las relaciones interpersonales representan tanto un estímulo como un desafío para la estrategia.

Esta estrategia pretende contribuir a la construcción de una Gipuzkoa y una Euskadi en las que todas las personas dispongan de más capacidades y recursos ante dichas situaciones, sea para elegir las, para hacerlas más satisfactorias, para revertirlas o para evitar que lleguen a darse.

Ponemos el foco en las personas mayores y en los procesos de envejecimiento pero no de forma exclusiva ni excluyente.

Esta estrategia se basa en principios como los siguientes: universalidad-normalización, prevención, personalización, comunidad, sectorialidad-intersectorialidad-transversalidad, diversidad-interseccionalidad, participación-coproducción-solidaridad, innovación y escalabilidad, y digitalización.

Pertsonen bakardade egoeren aurrean jarduera-tipologia batzuk zehaztu dira (lehen aipaturiko egoera desberdinei lotuta, aldaketaren teoria osatzen dute, estrategiak duen bakardadeen prebentzioari eta bakardadeei aurre egiteari buruz).

Bakardadeei aurre egiteko Gipuzkoako strategiaren oinarri 4 ibilbide garrantzitsu dira:

- sarea eraikitzea eta gobernantza,
- elkarrizketa publikoa garatzea,
- jarduerak berritzea eta zabaltzea,
- bakardadeei buruzko ebaluazioa eta ezagupena.

Se identifican algunas actuaciones-tipo ante las situaciones de soledad de las personas (y que asociadas a diferentes situaciones antes mencionadas conforman la teoría del cambio acerca de la prevención y abordaje de las soledades que adopta la estrategia).

La estrategia de Gipuzkoa ante las soledades se apoya en 4 grandes itinerarios:

- construcción de red y gobernanza,
- desarrollo de una conversación pública,
- innovación y extensión de actuaciones,
- evaluación y conocimiento sobre las soledades.

The background is a solid blue color. On the left side, there are several overlapping, thin white circular lines that create a sense of motion or a spiral. On the right side, there is a white triangular shape pointing towards the top right corner.

# **Estrategiaren oinarrizko eskema** Esquema básico de la estrategia



## Aldaketaren teoria bakardadeentzat

### Teoría del cambio para las soledades

## Ibilbide estrategikoak

### Itinerarios estratégicos


Izan litezkeen egoerak Situaciones posibles		Jarduera egokiak Actuaciones pertinentes	
<b>Bakardade egoerak</b> Situaciones de soledad	Bakardade soziala Soledad social	Bakardadeei aurre egiteko hirugarren mailako prebentzio jarduerak, edo bakardadeei buelta ematekoak edo gainditzekoak, edo bakardadeak arintzekoak edo orekatzekoak Actuaciones de prevención terciaria o de reversión o superación o de mitigación o compensación de las soledades	<b>1. Bakardadeetan interesa duten eta inplikatur dauden eragileen sarea eraikitzea eta indartzea, eta bakardadeekin lotutako jarduera esanguratsuen gobernantza eta kudeaketa eraikitzea eta indartzea.</b> Construcción y fortalecimiento de la red de agentes interesados e implicados en las soledades y de la gobernanza y la gestión de las actuaciones significativas en relación con las soledades.
	Bakardade emozionala Soledad emocional		
	Bakardade existentziala Soledad existencial		
<b>Bakardade arriskuko egoerak</b> Situaciones de riesgo de soledad		Bakardadeei aurre egiteko bigarren mailako prebentzio jarduerak, edo selektiboak, edo arriskuak murriztekoak Actuaciones de prevención secundaria o selectiva de las soledades o de reducción de riesgos	<b>2. Elkarrizketa publiko argigarri, motibagarri eta eragingarria garatzea bakardadeen inguruan Gipuzkoan.</b> Desarrollo de una conversación pública clarificadora, motivadora y movilizadora en relación con las soledades en Gipuzkoa.
<b>Bakardaderik gabeko egoerak/harreman inklusioa</b> Situaciones de no soledad / inclusión relacional	Zaintzak Cuidados	Bakardadeei aurre egiteko lehen mailako prebentzio jarduerak, edo unibertsalak, edo harremanak eta erlazioak sustatzekoak Actuaciones de prevención primaria o universal de las soledades o de promoción de las conexiones y relaciones	<b>3. Jarduera eraginkorrak sortu, berri, zabalu, hobetu eta eraldatzea bakardadeen inguruan Gipuzkoan.</b> Generación, innovación, extensión, mejora y transformación de actuaciones efectivas en relación con las soledades en Gipuzkoa.
	Gizarte laguntza Apoyo social		
	Komunitatea Comunidad		
<b>4. Ezagupena sortzea bakardadeei eta haiei aurre egiteari buruz, eta bakardade egoerei eta bakardadeei aurre egiteko jardueren eraginei buruz Gipuzkoan.</b> Generación de conocimiento sobre las soledades y su abordaje y sobre las situaciones de soledad y los efectos de las actuaciones ante las soledades en Gipuzkoa.			



# Sarrera

## Introducción





Adinberri Fundazioa Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta lurralde honetako gizartearen tresna bat da, eta helburu du modu estrategikoan laguntza ematea, modu berritzailean ikertu eta garatzeko zahartzaroaren iraultza (eta hari loturiko zenbait fenomeno), bai eta haiek eskaintzen duten erronka eta aukera ere.

Testuinguru horretan, foru erakundeak irizten du bakardadeak politika publikoaren estrategia bat behar duten fenomenoak direla, eta, hasteko, oinarri gisa lan hauek hartu dira:

- “Bakardadeak. Explorando soledades entre las personas que envejecen en Gipuzkoa”, Gipuzkoan zahartzen ari diren pertsonen artean bakardadeak aztertze ikerketa. Ikerketa hau Matia Fundazioak egin du, Mayte Sanchoren zuzendaritzapean, eta Adinberri programak finantzatu du 2018ko dirulaguntzen deialdian. 2020an argitaratua.
- “Denon artean oinarriak eraikitzen Gipuzkoan, bakardadearen erronka sozialari aurre egiteko” jardunaldiko emaitzen dokumentua. Jardunaldia Gipuzkoako Esperantzaren Telefonoak antolatu zuen, 2019ko azaroaren 7an.
- Javier Yanguasek zuzenduriko

Adinberri Fundazioa es un instrumento de la Diputación Foral de Gipuzkoa y de la sociedad del territorio para contribuir estratégicamente al estudio y abordaje innovador de la revolución de la longevidad (y diversos fenómenos asociados) y del reto y la oportunidad que representan.

En ese contexto, se considera por parte de la institución foral que las soledades constituyen un fenómeno merecedor de una estrategia de política pública y se adoptan como base en la que apoyarse, al inicio, los siguientes trabajos:

- El estudio “Bakardadeak. Explorando soledades entre las personas que envejecen en Gipuzkoa” elaborado por la Fundación Matia bajo la dirección de Mayte Sancho, financiado por el programa Adinberri en su convocatoria de ayudas de 2018 y publicado en 2020.
- El documento de resultados de la jornada “Construyendo las bases comunes para afrontar el reto social de la soledad en Gipuzkoa” organizada por el Teléfono de la Esperanza de Gipuzkoa el 7 de noviembre de 2019.
- Diversos trabajos dirigidos por Javier Yanguas en el marco del programa de personas mayores de la Fundación “la Caixa”.

- hainbat lan, "la Caixa"-Fundazioaren adinekoen programaren esparruan.
- Hurkoa Fundazioak egindako "Gipuzkoako 65 urtetik gorako pertsonen hauskortasun-egoeren prebalentziaren azterketa (kuantifikazioa eta ezaugarriak) azterlana", Adinberri programak finantzatua 2018ko diru-laguntza deialdian.

Era berean, inspirazio iturri gisa hartu dira Erresuma Batuko eta beste herrialde batzuetako antzeko prozesuak, baita beste dokumentu eta bibliografia erreferentzia batzuk ere, eta horrela egin da bakardadeei aurre egiteko Gipuzkoako estrategiaren oinarrien dokumentu hau. Helburu du laneko tresna bat izatea prozesu parte-hartzaile baterako, eta, prozesu horren bidez, estrategia onartua izan dezakegu 2021eko abendurako.

Oinarrien dokumentu hau Adinberri Fundazioak koordinatu du, Gipuzkoako Foru Aldundiko Gizarte Politika Departamentuarekin batera. Horiek talde eragile bat osatu zuten, prozesuari hasiera emateko.

Talde eragile honetako kideak dira:

- Adinberri, Gipuzkoako Foru Aldundia

- El "Estudio de la la prevalencia (cuantificación y caracterización) de las situaciones de fragilidad entre las personas mayores de 65 años en Gipuzkoa" elaborado por la Fundación Hurkoa y financiado por el programa Adinberri en su convocatoria de ayudas de 2018.

También se toman como inspiración los procesos similares en el Reino Unido y otros países, así como otras referencias documentales y bibliográficas y se elabora este documento de bases de la estrategia de Gipuzkoa ante las soledades, que pretende ser un instrumento de trabajo para un proceso participativo mediante el cual, para diciembre de 2021, podamos tener aprobada la estrategia.

La elaboración de este documento de bases ha sido coordinada por la Fundación Adinberri junto con el Departamento de Políticas Sociales de la Diputación Foral de Gipuzkoa, quienes constituyeron un grupo motor para iniciar el proceso.

Los miembros de este grupo motor son:

- Adinberri, Diputación Foral de Gipuzkoa (Ainhoa Becerra, Rakek San Sebastián).
- Departamento de Políticas Sociales, Diputación Foral de Gipuzkoa (Xanti Moriones).

- (Ainhoa Becerra, Rakel San Sebastián).
- Adinekoen Arreta Programa, Osakidetza (Mari Luz Peña).
- Aubixa Fundazioa (Javier Yanguas).
- Donostia Lagunkoia, Udala (Eva Salaberria).
- Fernando Fantova (gizarte aholkularia).
- Gipuzkoako Esperantzaren Telefonoa (Maribel Pizarro).
- Gizarte Politika Departamentua, Gipuzkoako Foru Aldundia (Xanti Moriones).
- Herritarren Partaidetzako Zuzendaritza, Gipuzkoako Foru Aldundia (Miren Arbelaitz eta Itziar Calvo).
- Matia Fundazioa (Sara Marsillas).

Era berean, idatzizko harremana ezarri da Gipuzkoako udalekin, estrategiarako funtsezko eragileak baitira, eta solasaldia Eusko Jaurlaritzarekin. Gainera, orainarte, pertsona hauei (eta elkarte hauei) ekarpenak eskatu zaizkie, eta haien ekarpenak jaso dira:

- Adinkide (Maite Sancho).
- Afagi Gipuzkoako senitartekoen, lagunen eta Alzehimerra edo beste demenziaren bat duten pertsonen elkarte (Koldo Aulestia).
- Agijupens. Erretiratu eta pentsiodunen gizarte zentroen Gipuzkoako elkarte
- Dirección de Participación Ciudadana, Diputación Foral de Gipuzkoa (Miren Arbelaitz e Itziar Calvo).
- Donostia Lagunkoia, Ayuntamiento (Eva Salaberria).
- Fernando Fantova (consultor social).
- Fundación Matia (Sara Marsillas).
- Programa de Atención a las personas Mayores, Osakidetza (Mari Luz Peña).
- Fundación Aubixa (Javier Yanguas).
- Teléfono de la Esperanza de Gipuzkoa (Maribel Pizarro).

También se ha iniciado una comunicación por escrito con los ayuntamientos de Gipuzkoa, agentes clave para la estrategia, y una interlocución con el Gobierno Vasco y se han solicitado y recibido hasta el momento aportaciones por parte de las siguientes personas (y organizaciones):

- Adinkide (Maite Sancho).
- Afagi, Asociación de Familiares, Amigos y Personas con Alzheimer u otras Demencias de Gipuzkoa (Koldo Aulestia).
- Agijupens. Asociación Gipuzkoana de Jubilados y Pensionistas (Joxe Agustin Arrieta).
- Cáritas Gipuzkoa (Mabel Cenizo).
- Cruz Roja (Divi García).
- Departamento de Políticas Sociales, Diputación Foral de Gipuzkoa (Carlos Al-

- (Joxe Agustin Arrieta).
- DYA Gipuzkoa (Javier Barace, Maider Makazaga).
- Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Organoa, Gipuzkoako Foru Aldundia (Ana Agirre, Miren Elgarresta).
- Euskofederpen (Karmele Peñagarikano, Santiago Larburu).
- Gipuzkoako Cáritas (Mabel Cenizo).
- Gizarte Politika Departamentua, Gipuzkoako Foru Aldundia (Carlos Alfonso, Aitziber Atxaga, Patxi Leturia).
- Gizalde (Ander Larrea, Miren Gurrutxaga).
- Gurutze Gorria (Divi García).
- Helduen Hitza (Jose Mari Elberdin).
- Hurkoa Fundazioa (José Ignacio del Pozo).
- Kutxa Fundazioa (Itziar Igartua, María Rubio).
- Nagusilan (Enara Solabarria, José Luis Elosua, Joserra Ecenarro).

Oinarrien dokumentu honek aurkibidea, gauzatze laburpena eta sarrera hau ditu, eta, horien ondoren, 2 multzo handitan banatuta dago. Lehenak, "Bakardadeen erronka soziala Gipuzkoan" deituak, 4 zati ditu: strategiaren eta haren izendapenaren ("Hariak") zergatia eta helburua azaltzea; oinarri gisa hartu dugun kontzeptu esparrua; Gipuzkoako

- fonso, Aitziber Atxaga, Patxi Leturia).
- DYA Gipuzkoa (Javier Barace, Maider Makazaga).
- Euskofederpen (Karmele Peñagarikano, Santiago Larburu).
- Fundación Hurkoa (José Ignacio del Pozo).
- Gizalde (Ander Larrea, Miren Gurrutxaga).
- Helduen Hitza (Jose Mari Elberdin).
- Kutxa Fundazioa (Itziar Igartua, María Rubio).
- Nagusilan (Enara Solabarria, José Luis Elosua, Joserra Ecenarro).
- Órgano de Igualdad de Mujeres y Hombres, Diputación Foral de Gipuzkoa (Ana Agirre, Miren Elgarresta).

Este documento de bases, tras el índice, la síntesis ejecutiva y esta introducción se divide en 2 grandes bloques. El primero, titulado "El reto social de las soledades en Gipuzkoa" tiene 4 partes: la explicación inicial del porqué y para qué de la estrategia y de su denominación ("Hariak"), el marco conceptual que tomamos como base, la presentación de lo que sabemos de la realidad de las soledades en Gipuzkoa y las coordenadas de partida para la estrategia: justificación, compromiso, agentes, plazo y contexto.

El segundo bloque de este documento de

bakardadeen errealitateari buruz dakiguna aurkeztea; eta estrategiarako hasierako koordinatuak: justifikazioa, konpromisoa, eragileak, epea eta testuingurua.

Oinarrien dokumentu honen bigarren multzoak, "Estrategia" deituak, 4 atal ditu. Lehenak helburua, ikuspegia eta printzipioak aipatzen ditu. Bigarrenak jardura-tipologiaren zerrenda jasotzen du. Hirugarren atalak bakardade egoerentzako aldaketaren gure teoria islatzen du. Eta laugarrenak 4 ibilbide proposatzen ditu, estrategia honen barnean jarraitu nahi ditugunak.

2 multzo handi horien ondoren, oinarrien dokumentu hau onarturiko estrategia bihurtzeko prozesuan garatu behar diren edukiak zehazten dira, eta dokumentu eta bibliografia erreferentzia nagusiak.

## **1. Bakardadeen erronka soziala Gipuzkoan**

### **1.1. Hariak: Zergatik? Zertarako?**

bases, titulado "La estrategia", contiene 4 apartados. El primero hace referencia al propósito, la visión y los principios. El segundo recoge un listado de actuaciones-tipo. El tercer apartado refleja nuestra teoría del cambio para las situaciones de soledad. Y el cuarto plantea los 4 itinerarios que queremos seguir dentro de esta estrategia.

Tras estos 2 grandes bloques, se identifican los contenidos a elaborar en el proceso de transformación de este documento de bases en la estrategia aprobada y las principales referencias documentales y bibliográficas.

## **1. El reto social de las soledades en Gipuzkoa**

### **1.1. Hariak: ¿Por qué? ¿Para qué?**

Hariak aipatzen ditugu, hasteko, bakardadeak ulertu nahi ditugulako, argumentuaren hari koherenteak eta partekatuak eraiki fenomeno honen inguruan. Estrategia hau egin, ezarri eta ebaluatzeko prozesuak bakardadeei buruzko elkarrizketa publiko baten kontaketa bat, diskurtso bat, hari bideratzaile bat egituratu eta eraiki nahi du. Kontaketa horrek lagundu egingo dio persona bakoitzari bere ibilbidean bakardade egoerak antzematen eta horiei aurre egiteko modua bilatzen, beste batzuekin lotzen diren harien bidez, lurraldeko ibilbide eta sare komunitarioetan.

Horrela, beraz, hariak aipatzen ditugu, baita ere, estrategia honek pertsonen arteko loturak eta harremanak indartu, hobetu eta areagotzea duelako helburu; ekintza konpromisoak eta partekaturiko ekintzak. Hariak botatzen eta jasotzen ditugu, elkarrekin lotzeko, eta, era berean, askatasuna, jarduteko aukera, autodeterminazioa ahalbidetzen dizkigute. Ez gaituzte lotzen, ez gaituzte geldiarazten; bakardade egoera jakin batzuk prebenitzeko edo gainditzeko hariak dira, zaintzeko hariak, babesteko hariak, komunitateko hariak. Hari horiek hautsi ditza-kegu, eta berriro ere lotu. Gizartean dagoen eta egotea nahi dugun elkarrekiko mende-kotasuna ordezkatzan duten hariak dira.

Hablamos de hilos, en primer lugar, porque queremos comprender las soledades, construir hilos argumentales coherentes y compartidos sobre este fenómeno. El proceso de elaboración, implementación y evaluación de esta estrategia quiere articular y constituir un relato, un discurso, un hilo conductor de una conversación pública sobre las soledades. Una narrativa que ayude a cada persona a reconocer en su trayectoria individual las situaciones de soledad y las maneras de afrontarlas, mediante hilos que se entretujan con otros en trayectorias y redes comunitarias en el territorio.

Así pues, hablamos de hilos, también, porque esta estrategia quiere fortalecer, mejorar y aumentar los vínculos y las relaciones entre las personas; los compromisos en acción y las acciones compartidas. Hilos que lanzamos y recibimos para conectarnos y que, a la vez, nos dejan libertad, maniobrabilidad, autodeterminación. No nos atan, no nos atenazan, hilos para prevenir o superar determinadas situaciones de soledad, hilos de cuidado, de apoyo y de comunidad. Hilos que podemos romper y que podemos volver a anudar. Hilos que representan la interdependencia que se da y queremos que se viva en la sociedad.

Estos hilos de pensamiento, vinculación y conversación, estos hilos que perdemos y recuperamos, quieren, también, ir configu-



Pentsamenduaren, loturaren eta elkarrizketaren hari hauek, galtzen eta berreskuratzen ditugun hari hauek, sare bat ere osatu nahi dute (Hariak sarea), gero eta nodo gehiagorekin, Gipuzkoan bakardadeei aurre egiteko jarduera, kudeaketa eta gobernantza publikoa izateko, komuna eta partaidetzakoa. Sare sendoa, eta kolore askotako hariak osatua, Gipuzkoako mapa osoa hartzen duena, pertsonen bizitzari, komunitateei eta lurraldeari zentzua, lotura eta bizitasuna ekarriz.

## 1.2. Kontzeptu esparrua

Dokumentu honetan, bakardadeei buruz ari garenean, pertsona batzuek sentitzen dutenari buruz ari gara: bizi duten egoeran, asko murriztuta edo mugatuta dituzte, edo batere ez dute, beste pertsona batzuekiko harremanak, loturak, komunikazioak edo erlazioak, edo subjektu kolektiboetako parte izateko loturak edo konpromisoak.


Ezin da jakin bakardaderik dagoen pertsonaren pertzepzioak, emozioak edo pentsamenduak ezagutu gabe: pertsona bat bakarrik bizi izateagatik, bakarrik paseatzen, lan egiten, jaten edo bidaiatzen duelako (adibide batzuk jartzearen), ezin dugu ondorioztatatu bakardade egoera baten aurrean gau-

rando una red (la red Hariak) con cada vez más nodos, para la actuación, la gestión y la gobernanza pública, común y colaborativa ante las soledades en Gipuzkoa. Una red fuerte y tupida de hilos de diversos colores que cubra todo el mapa de Gipuzkoa aportando sentido, conexión y dinamismo a la vida de las personas, las comunidades y el territorio.

## 1.2. Marco conceptual

En este documento, cuando hablamos de soledades, nos referimos a situaciones de significativa disminución, limitación o carencia de contacto, conexión, comunicación o relaciones con otras personas o de vinculación o compromiso de pertenencia a sujetos colectivos que sienten determinados individuos.

No es posible saber si existe soledad sin conocer las percepciones, emociones o pensamientos de la persona: no por el hecho de que una persona viva sola, pasee sola, trabaje sola, coma sola o viaje sola (por poner algunos ejemplos) podemos deducir que nos encontramos ante una situación de soledad en el sentido en el que tal término se toma en este documento y en esta estrategia (y en su bibliografía de referencia).

-  **Bakardade soziala**  
Soledad social
-  **Bakardade emozionala**  
Soledad emocional
-  **Bakardade existentziala**  
Soledad existencial

denik, dokumentu honetan eta estrategia honetan (eta erreferentziako bibliografian) hitz horrek duen esanahia kontuan izanik. Orokorrean, bakardadea gustukoa ez den egoera gisa ikusten da; hala ere, beste alde batetik, seguru asko pertsona guztien ibilbidean eta giza komunitate guztietan aurkituko dugun egoera gisa ere ikusten da.

En términos generales se considera la soledad como una situación insatisfactoria, aunque, por otra parte, también se ve como una situación que vamos a encontrar, con toda probabilidad, en la trayectoria de todas las personas y en todas las comunidades humanas. Se suele hablar de 3 dimensiones de la soledad, de 3 soledades:

**3 DIMENSIONI BURUZ HITZ**  
**PERSONEN ARTEKO HARREMANAK, ZENTZU**  
**ZABALEAN, MURRIZTUTA EDO MUGATUTA**  
**IZATEA, EDO EZ IZATEA BATERE.**  
que hace referencia a la disminución, limitación o carencia de relaciones interpersonales en un sentido amplio.

**intimitatea, afektibitatea eta**  
**konfiantza kontuan izanik bereziki**  
**esanguratsuak diren pertsonen**  
**arteko harremanak murriztuta edo**  
**mugatuta izatea, edo ez izatea batera.**  
que hace referencia a la disminución, limitación o carencia de relaciones interpersonales especialmente significativas por su intimidad, afectividad y confianza.

### 3 DIMENSIONES

**komunitatean rol bat izatearen, proiektu**  
**kolektibo baten parte izatearen, gizartean**  
**parte hartzearen sentimendua galtzea edo**  
**erabat haustea.**

que hace referencia a una pérdida o ruptura profunda del sentimiento de tener un rol en la comunidad, de identificación con un proyecto colectivo, de participación en la sociedad.

Ikusten dugun bezala, bakardatea pertsona batek subjektiboki hautematen duen egoera gisa ikusten da, pertsona horren itzaropenen arabera. Harremanak murriztuta edo mugatuta dauden edo batere ez dauden egoera objektiboei buruz hitz egiteko **isolamendu soziala** adierazpena erabiltzen dugu.

Erlazioen esparruan, bakardate egoerak lotuta egongo lirateke, ez bakarrik harreman kopuruarekin, baita harremanen kalitatearekin ere: harremanen doakotasuna eta elkarrekotasuna, edo harremanen intentsitate eta maiztasunaren egokitzapena.

Bere aldetik, bakardateen aurreko estrategia batek aintzat hartzen ditu, bakardate egoerez gain (bakardate kronikoa edo ez hain kronikoa, larria edo ez hain larria), **bakardate arriskua** (handiago edo txikiagoa) duten egoerak (edo bakardatearen aurrean dagoen zaurgarritasuna), eta bakardatearen arrisku faktoreak (bakardatearen aurrean zaurgarritasun faktoreak).

Badirudi segurua dela bakardate arriskua handiagoa dela, orokorrean, bizi zikloan barrera izaten diren aldaketa egoeretan gerta litezkeen galeretan (eta, horien artean, pertsonen bizi ibilbideko etapa aurreratuetan

Como vemos, la soledad suele entenderse como una situación percibida subjetivamente por la persona en función de sus expectativas. Para referirnos a las situaciones objetivas de disminución, limitación o carencia de relaciones, hablamos más bien de **aislamiento social**.

Las situaciones de soledad, en su dimensión relacional, no sólo tendrían que ver con la cantidad de las relaciones sino con su calidad, en aspectos como su nivel de gratuidad y reciprocidad o en la adecuación de su intensidad y frecuencia.

Una estrategia ante las soledades, por cierto, no sólo se preocupa por las situaciones de soledad (más o menos cronificada, más o menos severa), sino también por las situaciones de mayor o menor riesgo de soledad (o vulnerabilidad ante la soledad) y de los factores de **riesgo de soledad** (factores de vulnerabilidad frente a la soledad).

Parece fuera de duda que el riesgo de soledad, en términos generales, es mayor en las pérdidas que pueden producirse en situaciones de transición a lo largo del ciclo vital

izaten diren ohiko galera eta aldaketetan). Gaur eta hemen, **aldaketa sozialeko prozesu** batzuk zehaztu ditugu; faktore horiek zuzeneko eragina izan dezakete bakardade egoerak sortzeko orduan, eta batzuetan, indartzeko orduan:

1. Aldaketa demografikoa; horren ondorioz, bizi ibilbideak luzatu egin dira, belaunaldien aniztasuna areagotu egin da eta zaintzak behar ditugun urteak ere gehiago dira.
2. Urbanizazio eta globalizazio prozesua; pertsonen mugikortasun geografikoa areagotzen du beren bizitzan barrena (migrazioak barne).
3. Eraldaketak familien dinamikan eta egituran; banaketak eta harreman berriak areagotu dira, anai-arreben kopurua murriztu da, lanaren sexu banaketa aldatu da eta beste fenomeno batzuk gertatu dira.
4. Bizileku egitura aldatu da; pertsona bakarreko etxeak areagotu dira (% 25 gainditu dute jada).
5. Komunitateko bizitzan eta bizitza sozialean aldaketa kulturalak, araudi aldaketak edo aldaketa moralak; indibidualizazioa, aniztasuna, deserrotzea, pribatutasuna eta anonimotasuna nagusitu dira.

(y, entre ellas, en el caso de pérdidas y transiciones típicas de las etapas avanzadas de las trayectorias vitales de las personas).

Hoy y aquí, identificamos algunos **procesos de cambio social** como factores que pueden estar influyendo de forma directa en la incidencia y, en ocasiones, intensificación de situaciones de soledad:

1. La transición demográfica, con la prolongación de las trayectorias vitales, el aumento de la diversidad generacional y también de los años en los que necesitamos cuidados.
2. El proceso de urbanización y globalización, que aumenta la movilidad geográfica de las personas a lo largo de su vida (incluyendo migraciones).
3. Transformaciones en la dinámica y estructura de las familias, con incremento de las rupturas y nuevas uniones, disminución del número de hermanas y hermanos, cambios en la división sexual del trabajo y otros fenómenos.
4. Los cambios en la estructura residencial, con un incremento (hasta superar el 25%) de los hogares unipersonales.
5. Modificaciones culturales, normativas o morales en la vida comunitaria y social, en claves de individualización, diversi-

Edonola ere, bakardade egoeretan, testuinguru sozialak edo inguruak ere eragiten du, zuzenean edo zeharka: osasun edo funtzionalitate egoera jakin batzuetan, lan egoera, egoera ekonomiko, administratibo eta abar jakin batzuetan, eta, era berean, desberdintasunak, ekitate faltak, polarizazioak, segregazioak eta diskriminazioak daudenean genero, belaunaldi edo jatorri arrazoiengatik edo beste arrazoi batzuegatik. Las situaciones de vulnerabilidad y exclusión social hacen más probables las soledades.

Batzuetan, pertsona jakin batzuen bakardadeari buruzko kezka edo alarma gisa agertzen denak zerikusi handiagoa du pertsona horien beste egoera batzuekin, adibidez, haien etxebizitzaren irisgarritasuna edo segurtasuna, edo haien gaitasun funtzionala edo ekonomikoa, adibide batzuk aipatzearen. Kasu horietan, bakardadeei eta beste egoera horiei egin beharko zaie aurre.

Bakardade egoerak eta bakardade arriskuko egoerak zehaztu, kontzeptualizatu eta testuinguruan jarri ditugun bezala, bakardaderik gabeko egoerak zehaztu, kontzeptualizatu eta testuinguruan jarri behar ditugu, hau da, zer egoeratan gauden

dad, desarraigo, privacidad y anonimato.

Determinadas situaciones de salud, funcionalidad, laborales, económicas, administrativas u otras, así como desigualdades, inequidades, polarizaciones, segregaciones y discriminaciones por razones de género, generacionales, de origen u otras constituyen, en todo caso, un caldo de cultivo o contexto social más directo o más indirecto de las situaciones de soledad. Las situaciones de vulnerabilidad y exclusión social hacen más probables las soledades.

En ocasiones lo que se presenta como preocupación o incluso alarma por la soledad de determinadas personas tiene más bien que ver con otras situaciones de dichas personas como la accesibilidad o seguridad de su vivienda o su capacidad funcional o económica, por citar algunos ejemplos. En esos casos habrá que abordar tanto las soledades como esas otras situaciones.

Del mismo modo que identificamos, conceptualizamos y contextualizamos las situaciones de soledad y las situaciones de riesgo de soledad, hemos de identificar, conceptualizar y contextualizar las situaciones de no soledad,



**KOMUNITATEA**  
COMUNIDAD



**LAGUNTZA SOZIALA**  
APOYO SOCIAL



**ZAINTZAK**  
CUIDADOS

bakardaderik sentitzen ez dugunean, zer egoeratarira iristen garen bakardade egoerei buelta ematen diegunean edo gainditzen ditugunean.

Harremanak, konexioak, loturak, komunikazioa, partaidetza ditugu mintzagai. Eta, zehazkiago, 3 funtsezko hitz:

las situaciones en las que nos encontramos cuando no sentimos soledad, las situaciones a las que llegamos cuando conseguimos revertir o superar situaciones de soledad. Hablamos de relaciones, de conexiones, de vinculaciones, de comunicación, de participación. Y, más específicamente, de 3 palabras clave:

**beste pertsona baten bizitzari eusteko funtsezko jardueren ardura hartzeari egiten dio erreferentzia.**

término que hace referencia a hacerse cargo de actividades esenciales para la sostenibilidad de la vida de otra persona.

**beste pertsona batzuek ematen diguten bizitarako laguntza edo euskarria (informazioaren arloan, emozionala edo instrumentala).**

que es la ayuda o soporte para la vida (informativo, emocional o instrumental) que nos proporcionan otras personas.

**3 HITZ PALABRAS**

**partaide sentitzen garen giza kolektibitatea da; esaten dugu haren parte garela, eta harekin identifikatzen gara zentzu zabalean. Loturak ditugu, batzuetan ahulak, elkar ezagutzeari dagokionez, gertutasunean, auzoan, espazio publikoaren erabilera partekatu eta komunean.**

entendida como colectividad humana de la que nos sentimos parte, a la que decimos pertenecer, con la que nos identificamos en un sentido amplio, con vínculos, a veces débiles, de reconocimiento en la proximidad, en la vecindad, en la común y compartida utilización del espacio público.

Zalantzarik gabe, pertsonen bizi proiekturako autonomia funtzionalak eta autodeterminazioak eta gizartearen **harreman inklusioko** dinamikak lagunduta askoz ere segurua goa izango da pertsonak komunitateko harreman horietan, gizarte laguntzako eta zaintzako harreman horietan parte hartzea. Harreman inklusioaren barnean harreman ugari sartzen dira: bai familia harremanak eta elkarbizitza estuko harremanak, bai espazio publikoaren erabilera partekatuan izaten diren errespetuzko eta gizalegezko erlazio ahul eta iragankorrak, bai eta horien arteko harreman guztiak ere.

Azkenik, ulertu behar dugu harreman inklusioa inklusio sozialaren alderdi bat dela. Hori horrela, inklusio sozialaren beste arlo batzuek eragina dute harreman inklusioan (eta alderantziz): arlo administratiboak, lan arloak, egoitza arloak, osasun arloak, finantza arloak, eta abarrek.

Sin duda, la autonomía funcional y la autodeterminación para el proyecto de vida de las personas y las dinámicas de **inclusión relacional** de las sociedades van a contribuir a que sea más probable que las personas participen en esas relaciones comunitarias, de apoyo social y de cuidado. La inclusión relacional hace referencia a un abanico que va desde las relaciones familiares y de convivencia intensa hasta los nexos débiles y efímeros de respeto, cortesía y urbanidad en el uso compartido del espacio público.

Por último, hemos de entender que la inclusión relacional no es sino una de las dimensiones de la inclusión social y que se ve afectada por (y afecta a) otras vertientes de la inclusión social, como la administrativa, la laboral, la residencial, la sanitaria, la financiera u otras.

### 1.3. Gipuzkoako errealitatea

Pertsonen zuzenean galdetu izan diegunean beraien bakardade mailari buruz, maiztasuna aintzat hartuz (hori da neurtzeko ohiko modua), Gipuzkoaren kasuan eskuratu dugun datuak maila ertaina-baxua adierazi du. Bakardadeak ikerketan datu hau eskuratu da: 55 urteko eta gehiagoko pertsonen artean, lurraldean aitortu den bakardadearen prebalentzia % 5,5ekoa da. Hau da, Gipuzkoako 55 urte eta gehiagoko ia 15.000 pertsonak diote dezenteko maiztasunarekin bakarrik sentitzen direla. Mediterraneoko herrialdeek bakardade gehiago aitortzen dute, adibidez, Europako Iparraldeko herrialdeetakoek baino, eta Europako batez bestekoa % 9,5ekoa da.

Gipuzkoaren kasuan, beste kasu batzuetan bezala, aitorturiko bakardadea txikiagoa izaten da gizonen kasuan (% 3,7) emakumeen kasuan (% 7) baino. Beraz, egoera honetan dauden 55 urte eta gehiagoko 4.000 gizon baino gehiago eta ia 10.000 emakume zenbatu dira. Emaitzek agerian uzten dute 55 urtetik 64 urtera bitartekoen taldean

### 1.3. La realidad de Gipuzkoa

Cuando preguntamos directamente a las personas por su nivel o grado de soledad en términos de frecuencia (una forma habitual de medirla) obtenemos un dato que, en el caso de Gipuzkoa, se puede considerar medio-bajo. La prevalencia de la soledad declarada en el territorio entre las personas de 55 años y más obtenida en el estudio Bakardadeak es del 5,5%. Esto es, casi 15.000 personas de Gipuzkoa de 55 y más años afirman sentirse solas con bastante frecuencia. Los países mediterráneos suelen declarar más soledad, por ejemplo, que los nórdicos y el promedio de la Unión Europea es de un 9,5%.

**9TIK 12RA**  
DE LA 9 A LA 12

hirugarren mailako prebentzio jarduera edo prebentzio egokituko jarduera gisa uler daitezke funtsean, bakardadeei buelta emateko edo gainditzeko jarduera gisa, edo, beste kasu batzuetan, bakardadeak arintzeko edo orekatzeko jarduera gisa.

**prevención terciaria o indicada** de las soledades, de **reversión o superación** o, en su caso, de **mitigación o compensación** de las soledades.

bigarren mailako prebentzio jarduera edo prebentzio selektiboko jarduera gisa uler daitezke funtsean, hau da, bakardade arriskuak edo bakardadeen aurreko zaurgarritasuna murrizteko jarduera gisa.

**prevención secundaria o selectiva** de las soledades o de **reducción de riesgos** de soledad o vulnerabilidad ante las soledades.

# 12

## JARDUERA TIPOLOGIAK ACTUACIONES-TIPO

lehen mailako prebentzio jarduera edo prebentzio unibertsaleko jarduera gisa uler daitezke funtsean (edo pertsonen arteko harremanak, loturak edo erlazioak sustatzeko jarduera gisa).

**prevención primaria o universal** de las soledades (o de **promoción** de los contactos, las conexiones o las relaciones interpersonales).

Beraz, jarduera tipologiaren multzo hauek oinarrien dokumentu honetako kontzeptu esparruan (1.2. atala) aipaturiko egoera garrantzitsuenekin bateratzen baditugu, honela egokituko lirateke:

- Bakardadeei aurre egiteko lehen mailako prebentzio jarduerak, edo unibertsalak, edo harremanak eta erlazioak sustatzekoak: bereziki, **harreman inklusio egoeretan edo egoerentzat**.
- Bakardadeei aurre egiteko bigarren mailako prebentzio jarduerak, edo selektiboak, edo arriskuak murriztekoak: bereziki, **bakardade arriskuko egoeretan edo egoerentzat**.
- Bakardadeei aurre egiteko hirugarren mailako prebentzio jarduerak, edo bakardadeei buelta ematekoak edo gainditzekoak, edo bakardadeak arintzekoak edo orekatzekoak: bereziki, **bakardade egoeretan edo egoerentzat**.

Bakardade egoerentzako aldaketaren teoria honen helburua da azalpen sinplifikatua eta argigarria izatea; eta azaldu nahi du estrategiaren arabera zer modutara egiten den edo egin daitekeen bakardade egoeren prebentzioa eta egoera horiei aurre egitea politika publikoen aldetik. Funtsezkoa da strategiaren gauzatea, ezarpena eta ebaluazioa gidatzeko, eta hasierako dokumentua eta saiakera bat denez, ezinbestekoa izango da etorkizunean aldaketak egitea.

Por tanto, si asociamos o emparejamos estos bloques de actuaciones-tipo con las principales situaciones mencionadas en el marco conceptual (apartado 1.2.) de este documento de bases, la correspondencia sería:

- Actuaciones de prevención primaria o universal de las soledades o de promoción de las conexiones y relaciones: principalmente, en o para **situaciones de inclusión relacional**.
- Actuaciones de prevención secundaria o selectiva de las soledades o de reducción de riesgos: principalmente en o para **situaciones de riesgo de soledad**.
- Actuaciones de prevención terciaria o de reversión o superación o mitigación o compensación: principalmente en o para **situaciones de soledad**.

Esta teoría del cambio para las situaciones de soledad pretende ser una representación simplificada y clarificadora de la manera en la que la estrategia supone que se produce o se puede producir la prevención y abordaje de las situaciones de soledad desde las políticas públicas. Es fundamental para guiar la elaboración, implementación y evaluación de la estrategia y, por su carácter inicial y tentativo, necesariamente habrá de ser objeto de modificaciones sucesivas en el futuro.

## 2.4. Ibilbideak

Zehaztu ditugun jarduera tipologiak neurriren batean egiten ari dira Gipuzkoan (edo etorkizunean abian jar daitezke), eta horiek mapeatzen ari gara, mapa bat egiten ari gara, bertan kokatuta eta karakterizatu ta edukitzeko ahal den jarduera kopururik handiena. Aurkeztu berri dugun aldaketaren teoriak iradoki nahi du zer modutara sortzen dituzten jarduerak eraginak bakardadeetan.

Jarduera multzo hori hariz osaturiko tapiz bat bezala irudika dezakegu, eta tapiz horrek lurralde guztia estaliko du, lurraren arrasean. Gure aldaketaren teoriaren arabera, lurralde horretako toki bakoitzean jarduera mota desberdinak gauza edo gerta litezke, eta horiek, hipotetikoki, lortu nahi dugun eragina izan dezakete han bizi diren pertsonen profil guztietan.

Hori horrela izanik ere, Gipuzkoako estrategia bati buruz hitz egiteko, beste prozesu edo ekimen batzuk ere egon behar dira. Horiek, hasiera batean, jarduera tipologiekiko desberdinak dira, eta 4 ibilbide estrategikoko hauen bidez egituratzea proposatzen dugu (4 hari, baliabide, ardatz edo lan ildoren bidez):

## 2.4. Itinerarios

Las actuaciones-tipo que hemos identificado están llevándose a cabo, se están realizando en Gipuzkoa en alguna medida (o pueden ponerse en marcha en el futuro) y estamos mapeándolas, estamos elaborando un mapa en el que queremos tener ubicadas y caracterizadas el mayor número de actividades que sea posible. La teoría del cambio que acabamos de presentar intenta sugerir la manera en la que las actuaciones desencadenan efectos en las soledades.

Podemos imaginar ese conjunto de actuaciones como una alfombra de hilos que cubre, a ras de tierra, todo el territorio. Según nuestra teoría del cambio, en cada uno de los lugares de ese territorio, pueden estar operando o sucediendo diferentes actuaciones y teniendo, hipotéticamente, los efectos deseados en los diferentes perfiles de personas que allí viven.

Ahora bien, para hablar de una estrategia de Gipuzkoa, necesariamente han de darse otros procesos o iniciativas, diferentes (en principio) de las actuaciones-tipo, que proponemos estructurar mediante los siguientes 4 itinerarios estratégicos, 4 hilos, palancas, ejes o líneas de trabajo:

**Ezagupena sortzea bakardadeei eta haiei aurre egiteari buruz, eta bakardade egoerei eta bakardadeei aurre egiteko jardueren eraginei buruz Gipuzkoan.**

Generación de conocimiento sobre las soledades y su abordaje, sobre las situaciones de soledad y sobre los efectos de las actuaciones ante las soledades en Gipuzkoa.

**4 ibilbide horietako bakoitzaren barnean, ekimen batzuk proposatu beharko ditugu. Horietako bakoitzak bere helburuak, ekin-tzak, baliabideak, epeak, arduradunak, adierazleak eta jarduera estandarrak izango ditu, eta emaitzaren adierazleak eta estandarrak. Edonola ere, jarraian 4 ibilbide edo hari horietako bakoitza pixka bat gehiago azalduko dugu, eta nola gurutzatzen diren elkarren artean.**

Dentro de cada uno de estos 4 itinerarios, habremos de plantear algunas iniciativas, cada una de las cuales tendrá sus objetivos, acciones, recursos, plazos, responsables, indicadores y estándares de actividad e indicadores y estándares de resultado. A continuación, en todo caso, nos extendemos un poco más sobre cada uno de estos 4 itinerarios o hilos y sobre cómo se entrecruzan entre sí.

**Elkarrizketa publiko argigarri, motibagarri eta eragingarria garatzea bakardadeen inguruan Gipuzkoan.**

Desarrollo de una conversación pública clarificadora, motivadora y movilizadora en relación con las soledades en Gipuzkoa.

**Jarduera eraginkorrak sortu, berritu, zabaldu, hobetu eta eraldatzea bakardadeen inguruan Gipuzkoan.**

Generación, innovación, extensión, mejora y transformación de actuaciones efectivas en relación con las soledades en Gipuzkoa.

## **4 IBILBIDE ESTRATEGIKO ITINERARIOS ESTRATÉGICOS**

**Bakardadeetan interesa duten eta inplikatur dauden eragileen sarea eraikitzea eta indartzea, eta bakardadeekin lotutako jarduera esanguratsuen gobernantza eta kudeaketa eraikitzea eta indartzea.**

Construcción y fortalecimiento de la red de agentes interesados e implicados en las soledades y de la gobernanza y la gestión de las actuaciones significativas en relación con las soledades.

## 2.4.1. Sarea eta gobernantza

Esan dugun bezala, abiapuntu gisa egiaz-tapen bat dugu, alegia, Gipuzkoan bakardadeei aurre egiteko jarduerak badaudela eta egiten ari direla, eta beraz, jarduera horiek egiteko eragileak badirela. Hala ere, jarduera eremua edo esparrua ez da bereziki zehaztua, mugatua eta ezaguterraza.

Seguru asko, bakardadeei loturiko arloan badira eragile esanguratsuak baina horrela direla ez dakitenak; eta, bestalde, ez dago ia batere dinamika egonkor, sendo eta identifikagarriarik arlo hauetan: eragileen arteko elkarrizketa, eskala ekonomien ustiapena (zentzu zabalean), erabakiak modu partekatuan hartzea.

Beraz, jarraitu nahi dugun lehen ibilbidea izango da hariak ehuntzea, eta Gipuzkoan bakardadeekin zerikusia duen arloan interesa duten eta inplikaturik dauden eragileen sare hori lotzea (Hariak sarea). Horretarako, **ekimen** hauek ditugu, adibidez:

- Gipuzkoan dauden bakardadeei aurre

## 2.4.1. Red y gobernanza

Como decíamos, partimos de la constatación de que existen en Gipuzkoa, de que se están realizando en el territorio actuaciones ante la soledad y, por tanto, se cuenta con agentes que las llevan a cabo. Sin embargo, no nos encontramos ante un campo o ámbito de actuación particularmente definido, delimitado y reconocible.

Posiblemente hay agentes relevantes en lo que tiene que ver con las soledades que no son conscientes de serlo y, por otra parte, no existen apenas dinámicas estables, intensas e identificables de interlocución entre agentes, de aprovechamiento de economías de escala (en un sentido amplio), de toma de decisiones compartidas.

Irtegiak hilos y anudando esa red de agentes interesados e implicados en lo que tiene que ver con las soledades en Gipuzkoa (la red Hariak) será, por tanto, el primer itinerario que queremos seguir, con **iniciativas** como por ejemplo:

egiteko jardueren eta eragileen mapa egitea.

- Bakardadeetan interesa duten eragileen artean interes edo gai komunak kudeatzeko espazioak sortzea.
- Bakardadeekin loturiko arloaren gobernantzarako foro bat egituratzea Gipuzkoan.
- Bakardadeei aurre egiteko estrategiara eta haren sarera eragileak, jarduerak eta ekimenak sartzeko protokoloa egitea, ezartzea eta ebaluatzea.
- Bakardadeei aurre egiteko estrategia-  
ren idazkaritza tekniko edo kudeaketa egitura eratzea, haren funtzionamendua eta ebaluazioa.

Funtsezkoa da mintzagai dugun sare eta gobernantza hori ez izatea nekagarria edo pisua eragileentzat, baizik eta eramangarria eta beste batzuekin sinergiak bideratzen dituen. Hori horrela da, izan ere, pentsatzekoa da sare honetako eragileek aldi berean beste dinamika batzuetan parte hartu beharko dutela, alegia, sektoreko, sektore arteko eta zeharkako beste gobernantza dinamika batzuetan, besteak beste, prozesu edo dinamika hauetan: Euskadi Lagunkoia, komunitate errukitsuak, babes zibila edo zilar ekonomia.

- Elaboración del mapa de actuaciones y agentes ante la soledad existentes en Gipuzkoa.
- Generación de espacios de gestión de intereses o asuntos comunes entre agentes interesados en las soledades.
- Articulación de un foro para la gobernanza de lo relacionado con las soledades en Gipuzkoa.
- Elaboración, aplicación y evaluación del protocolo mediante el que los agentes, actuaciones e iniciativas se incorporan a la estrategia ante las soledades y a su red.

Configuración, funcionamiento y evaluación de la secretaría técnica o estructura de gestión de la estrategia ante las soledades.

Es fundamental que esta red y gobernanza de la que hablamos no resulte onerosa o pesada para los agentes, sino llevadera y sinérgica con otras. Ello es así porque es previsible que los agentes de esta red deban participar simultáneamente en otras dinámicas de gobernanza sectorial, intersectorial y transversal, incluyendo procesos o dinámicas como, por citar algunos ejemplos, las de Euskadi Lagunkoia, comunidades compasivas, protección civil o economía plateada.



## 2.4.2. Elkarrizketa publikoa

Zalantzarik gabe, azken bost urteotan gehiago hitz egin eta idatzi da bakardadeei buruz. Hala ere, batzuetan diskurtso horiek seguru asko dira:

- Nahasiak, termino ugari erabiltzen direlako, eta fenomeno honetaz eta honi aurre egiteaz arduratzen diren diziplinen artean nolabaiteko komunikazio falta eta hizkuntza komun baten falta dagoelako.
- Partzialak: populazioaren segmentu batzuetan oinarritzen direlako, beste batzuen kaltetan, edo bakardadeei loturiko faktore jakin batzuetan oinarritzen direlako, beste batzuen kaltetan.
- Estigmatizatzaileak: bakardadea pertsonen profil edo estereotipo jakin batzuekin lotzen dutelako, zurruntasunez, eta horiek modu negatiboan karakterizatzen dituztelako, batzuetan modu sinplifikatuan eta baita errua egotziz ere.
- Interesen bat dutenak: diskurtsoak egiten dituzten eragileen interes politikoek, komertzialek edo beste batzuek gehiegi inspiratu eta eraginiko diskurtsoak direlako.

## 2.4.2. Conversación publica

No cabe duda de que, en los últimos cinco años se habla y se escribe más sobre las soledades. Sin embargo, posiblemente, nos encontramos ante discursos que, en ocasiones, son:

- Confusos, por la profusión de términos y la relativa incomunicación y falta de lenguaje común entre diferentes disciplinas que se ocupan del fenómeno y su abordaje.
- Sesgados: por cargar las tintas en determinados segmentos de población en detrimento de otros o en determinados factores asociados a las soledades en detrimento de otros.
- Estigmatizantes: por asociar rígidamente la soledad a determinados perfiles o estereotipos de personas y caracterizarlos de manera negativa, en ocasiones de forma simplificadora e incluso culpabilizadora.
- Interesados: por estar excesivamente inspirados y animados por intereses políticos, comerciales u otros de los agen-

- Alarmistak: populazioan kezka eragitea helburu duten kontzeptu gehiegi erabiltzen dituztelako, arazoa aztertzeko eta arazoiari aurre egiteko biderik eskaini gabe.
- Iragakorrak: gaia azaletik eta modu iragakorrean lantzen dutelako, moda igarotzen den arte.

Beraz, elkarrizketa publiko zorrotza, argigarrria, inklusiboa, positiboa, proposamen gisakoa, ahalduntzea dakarrena eta iraunkorra egitean datza gakoa.

Bakardadeei buruzko elkarrizketa publiko berritua aktibatzen lagundu lezaketen **ekimenen** adibide batzuk hauek izan litezke:

- Dibulgazioko argitalpenak egitea.
- Hitzaldiak, jardunaldiak eta beste ekitaldi mota batzuk egitea.
- Film labur bat ekoiztea.
- Sare sozialetan modu planifikatuan parte hartzea.

Bakardadeei buruzko elkarrizketa publiko berri honetan, orientazioa eta edukia bezain garrantzitsuak dira moduak eta protagonistak; horrela, gauza bihurtzen ditugun horiek eta objektu gisa tratatzen ditugun horiek elkarrizketaren benetako subjektu izan daitezke.

tes emisores del discurso.

- Alarmistas: por abusar de conceptos que buscan provocar preocupación en la población sin ofrecer vías de análisis y abordaje.
- Efímeros: por tratar el tema de forma superficial y pasajera, hasta que se pase la moda.

Se trataría, por tanto, de desarrollar una conversación pública rigurosa, clarificadora, inclusiva, positiva, propositiva, empoderadora y sostenida.

Algunos ejemplos de **iniciativas** que podrían contribuir a activar una renovada conversación pública sobre las soledades podrían ser:

- Elaboración de publicaciones divulgativas.
- Realización de conferencias, jornadas y otro tipo de eventos.
- Producción de un cortometraje.
- Intervención planificada en las redes sociales.

En esta renovada conversación pública sobre las soledades, tan importante como la orientación y los contenidos son las formas y sus protagonistas, de modo que quienes

suelen ser cosificadas y tratadas como objeto puedan, efectivamente, ser sujetos reales de la conversación.

### **2.4.3. Berrikuntza eta zabalkuntza**

Bakardadeari aurre egiteko zehazten ari garen jardueren multzoa eta sarea sendotu, bultzatu, zabaldu, hobetu, eraldatu eta agerian jarri behar da, eta hori izango litzateke bakardadeei aurre egiteko Gipuzkoako estrategiaren funtsezko ibilbidea; izan ere, lurraldean zehar banatuta dauden jarduera eta eragileei esker aldatu, hobetu edo gaindituko dira pertsonak bizi ditzakeen edo bizi dituzten bakardade egoerak.

Ibilbide honen barnean, ekimen nagusia Gipuzkoako Foru Aldundiak aukeratuko litzuzkeen proiektu pilotu batzuk egitea da.

### **2.4.3. Innovación y extensión**

El conjunto y la red de actuaciones ante la soledad que vamos identificando ha de ser potenciado, impulsado, ampliado, mejorado, transformado y visibilizado y éste sería el itinerario fundamental de la estrategia de Gipuzkoa ante las soledades, dado que son las actuaciones y los agentes esparcidos por el territorio las que van a ir permitiendo la modificación, mejora o superación de las situaciones de soledad que pueden vivir o viven las personas.

Horretarako, proposamen gaitasuna behetik gora sustatuko da, lehen azalduko printzipioak edo balioak aplikatuko dira eta lehen zehaztu ditugun 3 multzoekin eta 12 jardura tipologiekin loturiko proiektuak egotea bideratuko da.

Beste **ekimen** batzuk izan litezke:

- Ezagupena helarazteko eta jarduerak eskalatzeko prozesu bat diseinatzea bakardadeei aurre egiteko eragileen sarearentzat.
- Proposamen bat sortzea, lehen mailako arretako gizarte zerbitzuetan bakardade egoerak antzemateko eta haien diagnostiko diferentziala egiteko.
- Kasua kudeatzeko sektore arteko eredu bat egitea, ezartzea eta ebaluatzea, bakardade egoerarik larrienei aurre egiteko.

Berrikuntzaren eta zabalkuntzaren ibilbidea da (eta, bereziki, proiektu pilotuak egiteko ekimena) strategiaren muina; izan ere, azken batean, beste ibilbideen eta ekimenen helburua lurraldean eragileek buruturiko benetako jarduerak hobetzea eta zabaltzea izan behar da.

La iniciativa principal dentro de este itinerario es la realización de algunos proyectos piloto que la Diputación Foral de Gipuzkoa seleccionaría, estimulando la capacidad de propuesta desde abajo hacia arriba, aplicando los principios o valores antes enunciados y buscando una presencia de proyectos relacionados con los 3 bloques y 12 tipos de actuaciones que hemos identificado antes.

Otras **iniciativas** podrían ser:

- Diseñar un proceso de transferencia del conocimiento y escalamiento de actuaciones para la red de agentes ante la soledad.
- Construir una propuesta para la aplicación en los servicios sociales de atención primaria de detección y diagnóstico diferencial de las situaciones de soledad.
- Elaborar, implementar y evaluar un modelo de gestión de caso intersectorial para el abordaje de las situaciones más severas de soledad.

El itinerario de innovación y extensión (y, especialmente, la iniciativa de realización de proyectos piloto) constituye la médula de la estrategia, en la medida en que los otros itinerarios e iniciativas, en definitiva, han de estar al servicio de la mejora y ampliación de las actuaciones efectivas de los agentes en el territorio.

## 2.4.4. Ebaluazioa eta ezagupena

Bakardadeei aurre egiteko jardueren eraginari buruzko froga ugari badago ere, egia da, baita ere, ez dagoela gaiari buruz behar adina integratuta dagoen ezagupen komunitate bat eta behar adina alderdi barneratzen dituen, behar adinako oreka duen, behar adinako argitzailea den eta behar adina adostuta dagoen ezagupen corpus bat. Horregatik, estrategia honen 4 ibilbideetako bat hauek osatzen dute: strategiaren ebaluazioa, haren ekimenak eta praktikan oinarrituriko jarduerak eta ikaskuntza; bakardadeei buruzko ikerketa eta bakardadeak prebenitzea eta haiei aurre egitea; eta, orokorrean, ezagupenaren sorreran parte hartzea.

Ibilbide honen barneko **ekimen** batzuk izan litezke:

- Ebaluazioa diseinatu eta egitea Gipuzkoan bakardadeei aurre egiteko estrategia baino lehen, bitartean eta ondoren.

## 2.4.4. Evaluación y conocimiento

Si bien existe abundante evidencia sobre efectos de actuaciones sobre las soledades, también es cierto que no existe una comunidad de conocimiento suficientemente integrada sobre el asunto ni un cuerpo de conocimiento suficientemente abarcador, equilibrado, explicativo y consensuado. Por ello la evaluación de la estrategia, sus iniciativas y las actuaciones y el aprendizaje desde la práctica, la investigación sobre las soledades y su prevención y abordaje y, en general, la participación en la generación de conocimiento constituyen uno de los 4 itinerarios de esta estrategia.

Algunas **iniciativas** dentro de este itinerario podrían ser:

- Diseño y realización de la evaluación ex ante, durante y ex post de la estrategia ante las soledades de Gipuzkoa.
- Creación y mantenimiento actualizado de un repositorio de buenas prácticas ante las soledades.


- Bakardadeei aurre egiteko jardunbide egokien gordailu bat sortzea eta eguneratuta edukitzea.
- Gipuzkoan bakardadeei buruzko ikerketa bat eratzea eta egitea (luzetarako ikerketa edo beste mota batekoa).
- Estrategia honetan dagoen bakardadeei aurre egiteko aldaketaren teoria berriro egitea, eta jarduera tipologia desberdinetan eta izan litezkeen modalitateetan sakontzea (laguntza ematea edo konexioa bideratzea, terapeutikoak edo beste batzuk, banakakoak edo taldekoak, presentzialak edo telematikoak, edo beste batzuk).
- Bakardadeek eragiten dieten pertsonen kolektibo jakin batzuei buruzko ikerketak egitea (LGTBI kolektiboa, familiarako zaintzaileak, migratzaileak, preso ohiak edo beste batzuk).
- Berariazko ikerketa bat egitea bakardadeei aurre egiteko estrategien ondoren sorturiko irudi profesional berriei buruz eta boluntariotza forma berriei buruz, eta langile horien prestakuntza beharrei eta eskaintzei buruz.
- Bakardadeen eragin ekonomikoaren ikerketa.
- Itxaropenenetan izaniko aldaketei edo harremanetan izaniko aldaketei buruz-
- Configuración y realización de un estudio (longitudinal o de otra índole) acerca de las soledades en Gipuzkoa.
- Reelaboración de la teoría del cambio ante las soledades contenida en esta estrategia y profundización en las diferentes actuaciones-tipo y posibles modalidades (acompañamiento o conectores, terapéuticas u otras, individuales o grupales, presenciales o telemáticas u otras).
- Realización de investigaciones sobre colectivos específicos de personas ante las soledades (colectivo LGTBI, cuidadoras familiares, migrantes, personas ex reclusas u otras).
- Realización de un estudio específico sobre nuevas figuras profesionales y formas de voluntariado a raíz de las estrategias ante las soledades y sobre necesidades y ofertas de formación para ese personal.
- Estudio del impacto económico de las soledades.
- Estudio sobre el cambio en las expectativas o el cambio en las relaciones como enfoque del abordaje de las soledades.

Los saberes adquiridos permitirán poner en cuestión y enriquecer los actualmente existentes, que contiene y en los que se basa la

ko ikerketa, bakardadeei aurre egiteko ikuspegi gisa.

Eskuraturiko jakintzei esker, gaur egun dauden jakintzak (estrategiak dituenak eta strategiaren oinarri direnak) zalantzan jartzea eta aberastea lortuko da, eta komunitateari praktika eta ezagupena emango zaizkio hauen inguruan: kontzeptu esparru hobeak, aldaketaren teoriak, neurtzeko, baloratzeko eta ebaluatzeko metrikak eta metodologiak.

estrategia y contribuirán a dotar a la comunidad de práctica y de conocimiento de mejores marcos conceptuales, teorías del cambio, métricas y metodologías de medida, valoración y evaluación.



# Oinarrien dokumentutik onarturiko estrategiara

Del documento  
de bases a la  
estrategia aprobada





Oinarrien dokumentu honetan jaso dugu strategiaren talde eragileak eta partaide izan diren udalek eta hirugarren sektoreko erakundeek pasa diren hilabeteetan aurreratu eta landu dutenaren zati nagusia. Une honetan, egokia iruditu zaigu jendartera ateratzea eta prozesu parte-hartzaile batean laneko tresna gisa eskaintzea. Prozesu parte-hartzaile horretara, logikoa den bezala, oinarrien dokumentu hau egiteko orduan egon ez diren eragileak gonbidatuko dira, eta, aldi berean, orain arte parte hartu dutenek lanean jarraituko dute, bai edukiak eskaintzeko dinamiketan, bai erabakiak hartzeko dinamiketan.

Bakardadeei aurre egiteko Gipuzkoako estrategia biltzen duen dokumentua azkenik onartzen denean, oinarrien dokumentu honetatik zabalagoa den dokumentu bat aterako da. Dokumentu berriak izan ditzake oinarrien dokumentuan jada dauden elementuak, eta oraindik egiteke eta erabakitzeko dauden garapenak eta zehaztapenak sartu beharko ditu.

Logikoa den bezala, oinarrien dokumentuan gehiago landu dira strategiaren oinarriekin, egituraketarekin eta ikuspegiarekin loturiko alderdiak, eta, estrategia onartzen

Este documento de bases recoge lo fundamental de lo avanzado y trabajado por el grupo motor de la estrategia y por los ayuntamientos y entidades del tercer sector participantes en los pasados meses, hasta el punto y momento en el que nos ha parecido oportuno hacerlo público y ofrecerlo como instrumento de trabajo en un proceso participativo. En dicho proceso participativo, lógicamente, se invitará a agentes que no han estado presentes en la elaboración de este documento de bases, a la vez que seguirán trabajando quienes ya han tomado parte hasta el momento, tanto en dinámicas de aportación de contenidos como de toma de decisiones.

Cuando se apruebe finalmente el documento que recoja la estrategia de Gipuzkoa ante las soledades, este documento de bases se habrá transformado en otro más extenso que podrá contener elementos que ya están en el documento de bases y que deberá incluir desarrollos y concreciones todavía pendientes de elaborar y decidir.

Lógicamente, el documento de bases se ha detenido más en aspectos de fundamentación, estructuración y concepción de la estrategia y, cuando ésta se apruebe,

denean, hauek zehaztu beharko ditu: jardueren eta eragileen mapa, ibilbide bakoitzaren barnean dauden ekimenak, epeak, ebaluazio adierazleak eta estandarrak, eragile arduradunak, strategiaren ikusizko eta ahozko nortasuna, strategiari eusteko egiturak, eskuragarri dauden baliabideak eta aurreikusiriko aurrekontua, baita dokumentu eta bibliografia erreferentzien multzoa eta terminoen glosarioa ere.

deberá precisar el mapa de actuaciones y agentes, las iniciativas dentro de cada uno de los itinerarios, los plazos, los indicadores y estándares de evaluación, los agentes responsables, la identidad visual y verbal de la estrategia, sus estructuras de soporte, los recursos disponibles y el presupuesto previsto, así como el conjunto de referencias documentales y bibliográficas y un glosario de términos.



**Dokumentu  
eta bibliografia  
erreferentzia nagusiak**  
Principales referencias  
documentales y  
bibliográficas



Erabateko zehaztasuna bilatu gabe, jarraian zerrendatu ditugu estrategia hau egiteko orduan gida eta laguntza gisa hartzen ari garen testu nagusiak:

ARARTEKO (2020): *Nahi gabeko bakardadea. Politika publikoen ereduak eta herriarren konpromisoa*. Vitoria-Gasteiz.

FANTOVA, Fernando (2014): *Diseño de políticas sociales. Fundamentos, estructura y propuestas*. Madrid, CCS.

HURKOA (2018): *Hauskortasunari buruzko proiektuaren txostena*. Vitoria-Gasteiz, Eusko Jaurlaritza.

KOPLING, Kate (2020): *Promising approaches revisited: effective action on loneliness in later life*. London, Campaign to End Loneliness.

MANSFIELD, Louise eta beste batzuk (2019): *A conceptual review of loneliness across the adult life course. Synthesis of qualitative studies*. London, What Works Wellbeing.

PINAZO, Sacramento eta BELLEGARDE, Mónica (2018): *La soledad de las personas*

Sin ningún ánimo de exhaustividad, se recogen a continuación los principales textos que estamos tomando como guía y orientación en la elaboración de esta estrategia:

ARARTEKO (2020): *La soledad no buscada. Modelos de políticas públicas y compromiso de la ciudadanía*. Vitoria-Gasteiz.

FANTOVA, Fernando (2014): *Diseño de políticas sociales. Fundamentos, estructura y propuestas*. Madrid, CCS.

HURKOA (2018): *Informe del proyecto de fragilidad*. Vitoria-Gasteiz, Gobierno Vasco.

KOPLING, Kate (2020): *Promising approaches revisited: effective action on loneliness in later life*. London, Campaign to End Loneliness.

MANSFIELD, Louise y otras (2019): *A conceptual review of loneliness across the adult life course. Synthesis of qualitative studies*. London, What Works Wellbeing.

PINAZO, Sacramento y BELLEGARDE, Mónica (2018): *La soledad de las personas mayores. Conceptualización, valoración e intervención*. Madrid, Fundación Pílares.

mayores. *Conceptualización, valoración e intervención*. Madril, Fundación Pilares.

PUGA, Dolores (2019): *El envejecimiento, un triunfo de la sociedad cuestionado por la falta de vínculos*. Madril, Fundación FOESSA.

SALAS, Elisa (2020): *La soletat no desitjada durant la vellesa, un fenomen social*. Barcelona, Hirugarren Sektorearen Taula.

SANCHO, Mayte (koordinazioa) (2020): *Bakardadeak: esplorando soledades entre las personas que envejecen en Gipuzkoa*. Donostia, Matia Fundazioa.

SEGURA, Javier (2018): *Comunitaria*. Madril, Salud Pública y Otras Dudas.

SIIS (2017): *Activación comunitaria y solidaridad vecinal. Tendencias y buenas prácticas*. Donostia.

GIT (Gipuzkoako Itxaropenaren Telefonoa) (2019): *Denon artean oinarriak eraikitzen Gipuzkoan, bakardadearen erronka sozialari aurre egiteko*. Donostia.

PUGA, Dolores (2019): *El envejecimiento, un triunfo de la sociedad cuestionado por la falta de vínculos*. Madrid, Fundación FOESSA.

SALAS, Elisa (2020): *La soletat no desitjada durant la vellesa, un fenomen social*. Barcelona, Taula del Tercer Sector.

SANCHO, Mayte (coordinación) (2020): *Bakardadeak: explorando soledades entre las personas que envejecen en Gipuzkoa*. Donostia, Fundación Matia.

SEGURA, Javier (2018): *Comunitaria*. Madrid, Salud Pública y Otras Dudas.

SIIS (2017): *Activación comunitaria y solidaridad vecinal. Tendencias y buenas prácticas*. Donostia.

TEG (Teléfono de la Esperanza de Gipuzkoa) (2019): *Construyendo las bases comunes para afrontar el reto social de la soledad en Gipuzkoa*. Donostia.

UNITED KINGDOM (2018): *A connected society. A strategy for tackling loneliness*. London.

UNITED KINGDOM (2018): *A connected society. A strategy for tackling loneliness*. London.

VICTOR, Christina eta beste batzuk (2018): *An overview of reviews: the effectiveness of interventions to address loneliness at all stages of the life course*. London, What Works Wellbeing.

VIDAL, Fernando eta HALTY, Amaia (2020): "La soledad del siglo XXI" in BLANCO, Agustín eta beste batzuk (koordinazioa): *Informe España 2020*. Madril, Comillasko Pontifize Unibertsitatea, 90-167 orriak.

YANGUAS, Javier (zuzendaritza) (2020): *El reto de la soledad de las personas mayores*. Barcelona, "La Caixa" Fundazioa.

VICTOR, Christina y otras (2018): *An overview of reviews: the effectiveness of interventions to address loneliness at all stages of the life course*. London, What Works Wellbeing.

VIDAL, Fernando y HALTY, Amaia (2020): "La soledad del siglo XXI" en BLANCO, Agustín y otras (coordinación): *Informe España 2020*. Madrid, Universidad Pontificia de Comillas, páginas 90-167.

YANGUAS, Javier (dirección) (2020): *El reto de la soledad de las personas mayores*. Barcelona, Fundación "La Caixa".



Gipuzkoako  
Foru Aldundia  
Diputación Foral  
de Gipuzkoa

ABISU LEGALA: Eskubide guztiak erreserbatuta. Ez da onartzen obra honen erreprodukzio totala edo partziala, ezta beraren sarrera inolako sistema informatiko batielara, eta ezta ere bere igorpena edozein forma edo medio bidez (elektronikoa, mekanikoa, fotokopia, grabazioa edo besteakoa), copyright jabeen aldez aurreko eta idatzizko baimenik gabe. Obra honen edozein erreprodukzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da aldez aurreko jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Eskubide horien kaltea jabetza intelektuaren aurkako delitua izan daiteke.

AVISO LEGAL: Todos los derechos reservados. No está permitida la reproducción total o parcial de esta obra, ni su acceso a cualquier sistema informático, ni tampoco su transmisión por ningún medio o forma (electrónico, mecánico, fotocopia, grabación o de otro tipo), sin el permiso previo por escrito de los propietarios de los derechos de autor. Para la reproducción, distribución, comunicación pública o modificación de esta obra es imprescindible contar con la autorización previa de los titulares, excepto en los casos previstos por la ley. La infracción de estos derechos puede constituir un delito contra la propiedad intelectual.

LEGAL NOTICE: All rights reserved. It is forbidden the total or partial reproduction of this work, as well as its access to any computer system, or its transmission by any means or form (electronic, mechanical, photocopy, recording or otherwise), without the prior written permission of the copyright owners. The reproduction, distribution, public communication or modification of this work requires prior written authorization of the owners, except in those cases provided by law. Infringement of these rights may constitute an offence against intellectual property rights.

